

# NOLAKO OAK DIRA HERRIKO ESPAZIO IREKIAK?

---



**Eskolako  
Agenda  
2030**



**UDALAKO  
INGURUMEN  
ESKOLA**



# ZERGATIK AZTERTU ESPAZIO IREKIAK

"Egoera berritik iraunkortasunera" gaia ardatz hartuta aurten gure herriko espazio irekiak nolakoak diren aztertzen aritu gara Eskolako Agenda 2030 proiektuaren baitan.

Izan ere, egoera berri honetan inoiz baino garrantzia handiagoa hartu dute espazio horiek, gure aisialdirako ezinbesteko espazio baitira.

Herrian bertan, denok eskura izango ditugun kalitatezko espazioak behar ditugu; espazio zabalak, autoen arriskurik ez dutenak, irisgarriak direnak, bertaratzeko errazak eta herritar guztientzat egokiak direnak.

Lasaitasuna emango diguten inguruak izan behar dute, zarata maila baxukoak, txorien kantu ezberdinez gozaten utziko digutenak, zuhaitz mota ezberdien babesza eta paisaia eskeintzen dutenak.

Eta nola ez, garbitasunarekin batera, iturriak, eserlekuak eta gainontzeko equipamenduak egoera onean mantendu behar dituzte.



# KALITATEZKOAK ETA NAHIKOAK AL DIRA?



Kartulina batean prest eraman dugu jaso beharreko datuen eskema eta taldetan banatu gara aspektu ezberdinak ikertzeko.

Lehen Hezkuntzako 4.mailako ikasleek parte hartu dute jarduera honetan, guztira ia 200 ikaslek, alegia. Arrasate Herri Eskolako, Arimazubi eta Gazteluondoko ikasleekin Monterron eta Santa Barbara berdeguneak ikertu ditugu eta Santa Teresako ikasleekin, aldiz, Arruena eta Aldaiko espazioak.



# ONDORIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK



Gu garez espazio hauek maiz erabiltzen ditugunak, erabilera egokia egitea dagokigu, horregatik, denbora hartu dugu berdegune hauek zaintzeko konpromisoak batzeko; esate baterako, zaborra lurrera ez botatzea, plastiko gutxiago erabiltzea edota landareak errespetatzea.

Horretaz gain, Arrasateko Udalarri helarazteko proposamenak bildu ditugu espazio hauen egoera hobetzeko ideiekin; adibidez, beste iturri bat jartzea Monterronen, sentsibilizazio kanpainak abiatzea parkeen erabilera egokia lortzeko, zuhaitz eta hegaztien izenarekin kartelak jartzea, zakarrontzi gehiago, mahaiak eta eserleku gehiago jartzea zenbait tokitan edota zaborra sakonago garbitzea.